

Urtarrilaren 21eko Hezkuntzako Zuzendari Nagusiak emandako 4/2019 Ebazpenak arautzen duen prozedura.

A) Gurasoen edo legezko tutoreen lan-egoera eta/edo egoera akademikoa.

a.1) 20 puntu, jarraian adierazten diren eskaeretak:

- Guraso edo legezko tutore biak lanaldi osoan edo partzialean lanean ari badira.
- Guraso edo legezko tutoreetako bat lanaldi osoan edo partzialean lanean ari bada eta bestea lehentasunezko dedikazioa eskatzen duten ikasketa arautuak egiten ari bada (behar bezala justifikatuta).
- Guraso edo legezko tutore biak lehentasunezko dedikazioa eskatzen duten ikasketa arautuak egiten ari direnean (behar bezala justifikatuta).
- Guraso bakarreko familiak, lanean ari badira edo lehentasunezko dedikazioa eskatzen duten ikasketa arautuak egiten ari badira (behar bezala justifikatuta).

a.2) 15 puntu: aitak, amak edo legezko tutoreetako batek lanaldi osoan edo lanaldi partzialean lan egiten duenean edo lehentasunezko dedikazioa behar duten ikasketak egiten ari denean, eta bestea lana bilatzen ari denean.

a.3) 10 puntu, familiako biak –aita eta ama edo tutore legalak– lan bila ari direnean. Guraso bakarreko familien kasuan, 15 puntu

Ez da lana bezala hartuko Gizarte Segurantzaren edo, kasu bada, Jarduera Ekonomikoen Zergan altan eman gabe egindako lana.

B) Familiaren osaera. Gehienez lor daitezkeen puntuak: 15 puntu.

b.1) Modalitateak:

- Deialdi berean bi seme-alabarentzat edo gehiagorentzat plaza eskatzen bada ikastetxe berean (plaza erreserba barne), 15 puntu.
- 6 urtetik beherako bi seme-alaba dituzten familien kasuan, puntu 1 (2013/01/01 ondoren jaiotakoak).
- Familia gurasobakarrak, 5 puntu
- Familia ugaria, 5 puntu
- Familia unitateko kideren batek %33ko edo gehiagoko urritasun fisiko, psikiko edo sentsoriala aitortua badu, 4 puntu.

C) Per capita errenta tarreak, puntuazio ez-metagarria: 15 puntu

PER CAPITA ERRENTAREN TARTEAK		PUNTUAZIOA
ZENBATEKO HONETATIK	HONETARA	
15.000,00 eurotik gora		1,5
12.400,01 €	15.000,00 €	3,0
10.700,01 €	12.400,00 €	4,5
9.300,01 €	10.700,00 €	6,0
7.980,01 €	9.300,00 €	7,5
6.650,01 €	7.980,00 €	9,0
5.500,01 €	6.650,00 €	10,5
4.500,01 €	5.500,00 €	12,0
3.350,01 €	4.500,00 €	13,5
3.350,00 €	edo gutxiago	15,0

D) Etxebizitzatik edo lantokitik gertutasuna. Gehienez lor daitezkeen puntuak: 20 puntu

- 20 puntu. Haurra eta gutxienez aita, ama edo legezko tutore bat 2019ko urtarrilaren 1a baino lehen Antsoainen erroldatuta egoteagatik.
- 8 puntu. Bietako batek (aitak, amak edo legezko tutoreek) Antsoainen lana egiteagatik.
- 5 puntu. Bietako batek (aitak, amak edo legezko tutoreek) Antsoango Udal Haur Eskolan lan egiteagatik.

E) Beste irizpide batzuk.

Hautapen Batzordeak behar bezala frogatutako eta aurreko ataletan bildu gabeko beste behar larri batzuk –pertsonalak, familiakoak edo sozialak– hartzen ahal ditu kontuan. 10 puntu, gehienez ere.

F) Puntuazio berdinketa gertatzen deneko ebazpena.

Baremoa aplikatuta, adin talde bakoitzerako eskaintzen den azkeneko plazan berdinketa gertatuz gero, egoera ebazteko irizpide hauek aplikatuko dira, bata bestearen ondoren:

- Ikastetxean anai-arrebak dituzten haurrak
- Familiaren errenta txikiena
- Hautapen Batzordeak eginiko zozketa